

## San Sebastian 2024

### Eguraldi onak eta parte hartze handiak gertaerarik gabeko eta gure jaiaren biziraupena indartuko duten hainbat mugarri edizioaren protagonista izan dira

Eguraldi onak eta San Sebastian eguna larunbata izateak danborradaren errekor guztiak gainditzea ekarri du 2024an. Bandera igoera zein jaitsieran Konstituzio plaza bete egin da gure jaiaren 24 orduak disfrutatu duten hiritarrez.

Ez da atzean gelditu danborradetan parte hartu duten pertsonen kopurua: guztira **26.686 pertsona** izan dira, haur danborradaren zein bezperan ateratzen diren danborradetako parte hartzaileak barne, euren danbor, upel edo edarrei eragin dietenak Sarriegiren doinuei jarraituz.

Aurtengo danborradan aurrera pausoak egin dira parte hartzearen berdintasunean:

\***beste hiru danborrada**, Catedral Centenario, Ondar Gain eta Zubi Gain, gizonezkoak izatetik mistoak izatera pasa dira.

\*Union Artesanak lau emakume sukaldari eta emakume danborjole baten partehartzea izan du, eta horrenbestez, **emakumeek danborradan izan daitezkeen edozein rol hartu ahal izan dute**.

Gainera, **25 urte bete dira banderaren igoera ekitaldian lehen aldiz emakumeak zein gainerako auzoetako danborradetako ordezkariak parte hartzen hasi zirenetik**. Guztira 120 danborradetako ordezkariak parte hartu dute, 121 Gaztelubide kontuan hartzen bada. Hortaz, 2024ean atera diren 160 danborraden %76k izan dute ordezkaritza. Amara-Loiolako Erriberetako 23 danborradetatik 22 oholtzan izan dira (eremu horrtean izena emanda duten danborraden %95,65); Altza-Intxaurren Bidebieta auzoetatik 10 danborrada; Parte Zaharreko 13 (Gaztelubide kontuan hartu gabe); Antiguako 19; Erdialdeko 22, eta Gros auzoko 22.

Bandera jaitsieran ere gainerako auzoetako danborradetako ordezkaritza zabala egon da. Guztira 108 ordezkariak parte hartu dute hiriko danborrada zaharrenarekin batera Konstituzio plazako oholtzan jaiaren agur ekitaldian. 108 ordezkari horietatik 58 gizonak izan dira eta 50 emakumeak.

### **160 pertsona helduen danborrada eta 52 haur danborrada**

**24 ordutako jaiari** urtarrilaren 20aren 0:00etan hasiera ematen zaio eta 24:00etan amaiera, baina aurretik hainbat ekitaldi egoten dira giroa prestatzen joateko. Donostiarrek donostiar izateaz harro eta emozioa erakusten dute ekitaldi horietan guztietan: haur danborradaren aurkezpena, hiritar merezimenduaren dominak, urtarrilaren 19ko ikastetxetako eta auzoetako haur danborradak, bandera igo aurretiko afariak... Horiek guztiak eta beste hainbat dira gure hiriaren egun handia baino lehen egiten direnak.

**Bandera igoera, haur danborrada, urrezko danborra eta arriada** emozio handiko ekitaldiak izaten dira eta horrela bizi izan dute donostiarrek zein beste hainbat lekutatik etorritako pertsonen. Azken hauek sorpresa polita eraman dute jai ezagututakoan eta seriotasuna eta jai ezartzen dituzten desfileak ikusi dituztenean, ilarak desegin direnean eta berriro Danbor jole, Upel-jole edo Urketari Nagusien diziplina ikusi dituztenean.

**Eguna zoragarria izan da.** Danborradek ez dute gertakari handirik izan, eta pertsona ugari izan dituzte haiei jarraika. Jaiak larunbatean egin denez urtarrilaren 21eko goizaldera arte jarraitu du. Urtarrilaren 20ean goizean goiz Udalaren garbiketa zerbitzuek ezin izan dute aurreikusitako orduan garbitzen hasi (05:00etan), izan ere, jende ugari jaigiroan jarraitzen zuen. Hori dela eta, 20ean goizean goiz atera diren danborradek hainbat kaletatik igarotzeko zailtasunak izan dituzte. Behin jendea alde egiten hasita, garbiketa lanak egin dira eta 10:30etarako kaleak garbiak zeuden.

Erdialdea trafikora itxi da, bertako danborradek euren ibilbideak ondo egin ahal izateko. Itxierari esker danborrada horiek guztiek euren ibilbideak ondo egin ahal izan dituzte eta danborrada horiek guztiak jarraitzeko aukera izan duten pertsona guztiek erosotasunez egin ahal izan dute ohikoa den trafikoarekin arazorik izan gabe.

Iaz bezala Donostiako Martxa bere osotasunean abestu duen publikoa oso handia izan da. Hori donostiar izateaz harro dagoen hiri baten nortasunaren adierazlea da.

**Telebistan ere ikusle kopuru errekorra egon da.** ETBren emanaldiak %7,8ko sharea izan du. Horri esker, jaiak beste modu batean bizitzeko eta zuzenean bizi ezin duten pertsonen iristeko aukera dago.